

## Lau herritan baino ez dute %80tik gorako euskararen erabilera

Eustatek eman berri dituen euskararen inguruko datuen harira, Uemak kezka azaldu du nabarmen jaitsi delako euskararen erabilera, batez ere eskualdeko herri euskaldunenetan // 4-5

## Datorren urtean irekiko dute Euskal Mendizaletasunaren Museoa Tolosan

Larramendi auzoko Arkaute etxean kokatuko dute, eta Euskal Mendizale Federazioaren 100. urteurrenarekin eta XIV Orduak mendi ibilaldiarekin bat eginez zabaldu nahi dute // 6



«Pauso bat eman dut aurrera, eta hori behar nuen konfiantza izateko»

### NAIA AMONDARAIN TXIRRINDULARIA

Sopelan hiru denboraldi egin ostean, Laboral Kutxa taldearekin bi sasoirako sinatu du txirrindulari ibartarrak; iragan denboraldi ezin hobea izan du, eta taldeak dituen helburuak ikusita erabaki duela aldatzea azaldu du // 7

**%100eko\* BEHERAPENA**

**%50 Abenduan | %50 Urtarrilean**

\*Azaroaren 24tik 28ra arteko promozioa  
Baldintzak kirolgunean kontsultatu

**GREEN  
FRIDAY**

Bisita itzazu Tolosako Udal Kirol Instalazioak  
**Usabal 25A, 20400 Tolosa. Gipuzkoa.**

# Justizia feminista aldarrikatuko dute bihar Tolosaldean

Indarkeria Matxistaren Aurkako egunaren harira mobilizazio ugari izango dira eskualdeko herrietan; elkarretaratzeak eta bestelako ekitaldiak egingo dira

## Erredakzioa

Euskal Herriko Mugimendu Feministak bihar kalera ateratzeko deiarekin bat egin dute eskualdeko talde feministek eta *Beldurra-rena eta kontrolaren aurrean, justizia feminista! Antolatuta gaude!* lelopean mobilizazio ezberdinak egingo dituzte. Feministek ohartarazi dute antolatuta daudela eta indarkeria matxistei aurre egiteko autodefentsa feminista dutela tresnarik eraginkorrena. «Sareak eraiki, elkar zaindu, borroka komunak martxan jarri, ardurak hartu eta sistema aldatzeko moduak eraiki. Antolakuntza feministaz boteretuko gara».

Indarkeria matxista molde guztiak salatuko dituzte gaur-biharretan egingo dituzten ekitaldietan: indarkeria instituzionala, lan esparruan edo etxean ematen dena, baita heteroarautik ateratzerakoan emakumeek pairatu



Iaz azaroaren 25ean Tolosan egin zuten manifestazioa Triangulotik abiatzen. J.A.

behar izaten dutena. Mugimendu feministatik udako jai giroan ziztaden inguruan gertatutakoa gogoratu dute: «Kontrol sozial etengabea, beldurrean oinarritutako mezuak eta poliziaren presentzia neurrigabea bizi izan ditugu, dena, berriz ere, arreta emakumeengan jartzeko».

Indarkeria Matxistaren Aurkako Eguna gizezkoak interpela-

tzeko ere baliatuko dute. «Dagokien ardura hartzeko exijitzen diegu. Utz dezatela erasotzaile eta konplize izateari. Azaleko diskurtsoek ez dute balio praktikan ezer aldatzen ez bada».

Mezu hauekin beteko dira plazak bihar Tolosaldean. Elkarretaratzeak iluntzean egingo dira, baina bestelako ekitaldi asko izango dira herriz herri.

## INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA 2022

### Azaroak 24, osteguna

#### AMASA-VILLABONA

**10:00.** Guretzako jatorri anitzeko emakumeen bilgunea Subijana etxean.

#### ANOETA

**18:30.** *Euskara, feminismoa eta beste bidaide batzuk*, Lorea Agirre-  
ren hitzaldia balio anitzeko gelan.

#### ADUNA

**18:30.** *Evaren alabak* kale antzerkia herriko plazan.

#### ALTZO

**19:00.** Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inori* aztertuko dute irakurketa tallerrean.

### Azaroak 25, ostirala

#### ABALTZISKETA

**16:15.** Abaltzisketako Txalburu eskolak deituta, elkarretaratzea egingo dute indarkeria matxista salatuko, eskola ondoko plazan.

#### ALBIZTUR

**16:00.** Eskolan, tratuen inguruan role playing-a. Ondoren elkarretaratzea eskola aurrean.

#### ALEGIA

**19:00.** Kontzentrazioa plazan.

**Ondoren.** Bertso poteoa, Maddi Aiestaran eta Maddi Ane Txoperena bertsolariekin, trikitiaz girotua.

#### ALTZO

**19:00.** Elkarretaratzea plazan.

#### ANOETA

**19:00.** Elkarretaratzea.

**Ondoren.** Bertso afari feminista Maider Arregi eta Nerea Elustondo bertsolariekin, Kuku elkartean.

#### BERASTEGI

**18:30.** Elkarretaratzea plazan.

**19:00.** *Evaren alabak* kale antzerki ibiltaria eliza inguruan.

#### BERROBI

**18:45.** Kontzentrazioa udaletxe aurrean, 5 minutuko isilunea.

**19:00.** *A ze parea!* antzezlan Etxolan.

**Ondoren.** Ostatuan pintxo-potea.

#### BIDANIA-GOITZ

**19:00.** Elkarretaratzea emakumeen kontrako indarkeria salatuko, frontoi aurrean.

#### IKAZTEGIETA

**19:00.** *Lumineszenteak* Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak eta erresilientzia historia zenbait aurkeztuko dituzte Igone Mariezkurrena kazetariak eta Irantzuz Pastor argazkilariak udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

**Ondoren.** Elkarretaratzea.

#### IRURA

**18:00.** Elkarretaratzea plazan.

**18:15.** Bertso saioa, kulturunean. Gai jartzailea Amaia Agirre izango da. Bertsolariak Alaia Martin eta Saioa Alkaiza.

#### AIZTONDO

**18:00.** Karro-poteoa, Villabonako plazatik hasita.

**18:45.** Iridaka indarkeria jasaten duten emakumeen omenez.

**19:00.** Elkarretaratze ibiltaria (Zizurkil-Villabona).

**19:30.** Villabonako Berdura plazan A25 ekitaldia.

**20:30.** Pikoteo-karaoke-bertsoak, Villabonako Gaztetxean.

#### TOLOSA

**18:30.** Itaiak deitutako manifestazioa Trianguloa plazatik abiatuta.

**19:00.** Tolosako Asanblada Feministak deituta manifestazioa Triangulotik abiatuta. Numen dantza eskolak emango dio hasiera ekitaldiari.

# Irradaka, matxismoaren aurka elkar lotuta

## J.M. Zizurkil

Emakumeak, borobilean, elkarri eskutik heldu, kantuan eta dantzaz. Batasun eta dantza irudi hori ikusi da martxoaren 8ko zenbait Euskal Herriko ospakizunetan azken urteotan. Zizurkil lehena aldiz aurten egin zuten Emakumeen Nazioarteko Egunean eta bihar errepikatuko dute Joxe Arregi plazan, 18:45etik aurrera.

Mundu zabalean hainbat kultura eta garai historikotan dantzatu dira emakumeak. Dantzarako egitura zaharrenetakotzat jotzen da irradaka eta Argia dantza taldea berreskuratze lan horretan aritu da azkeneko urteetan Euskal Herrian. Taldean jarduten du Zizurkil bizi den Itziar Otamendi dantzariak eta Juan Antonio Urbeltzekin batera, herri ez-

berdinetan aritu da irradaka erakusten. «Beste tokitan lanketa hori egiten ari nintzela ikusita, nire buruari galdetu nion zergatik ez egin horrelako zerbait Zizurkil». 2020an hasi zen Otamendi ideia mamitzen, Bukalai dantza taldeko batzordeko kide zela, eta pandemia tarteko urtebetez atzeratu zuten lanketa: «2021ean oraindik ere mugatuta geunden, ezin bildu, baino martxoaren 8an irradaka grabatu genuen udal-txe atarian; gero zabaldu egin genuen bideoa jendeak dantzak ikas zitzen».

Zizurkilerako prestatutako irradakak badu bereizgarri bat: ez da beste toki batetik ekarritakoa, propio bertarako sortua baizik. Otamendik sortu zuen egitura ko-reografikoa: «Argi neukan edozein emakumek dantzatzeko mo-

dukoa behar zuela izan, konplikaziorik gabea. Ez nuen inor dantzarako baldarra denaren ustetan kanpora geratzerik nahi. Ez da zertan dantzaria izan behar irradakan parte hartzeko».

Hiru zatitan osatu dute Zizurkilgo soka dantza hau. Lehenengo zatian Eñaut Agirrek Oiartzungo bertsolari bati jasotako doinuak erabiltzen dute; bigarren zatian, Bilintxen *Soldadu sartzeara* bertso sorta musikatzeko Joseba Tapiak erabilitako doinuak erabiltzen dituzte; azkeneko partean, *Iturengo arotza* doinu herrikoiekin egiten dute dantza. «Belarrira erraz sartzen diren doinuak dira, dantzarako ez oso konplikatua, eta hitzak ere modu horretakoak izan behar zutelako pentsatu nuen». Rosi Lazkano herriko bertsolariarengana jo zuen Otamendik bertso



Martxoaren 8an egin zuten Irradaka eta Bernarda Usabiaga omendu zuten. J.M.

eske eta hark osatu ditu bigarren eta hirugarren zatietarako hitzak.

Aurten, martxoaren 8an dantzatu zuten plazan irradaka. Hil berria zen Bernarda Usabiaga omendu zuten, haren irudira sortutako erraldoia borobilaren erdian zutela. «Belaunaldi ezberdinetako emakumeak bildu ginen eta hori da ederra. Dantza honek baliorik badu, denak elkarrekin

egiten dugula da. Bihar ere hori irudikatuko dugu, emakumeak elkar hartuta gaudela indarkeria matxistari aurre egiteko», dio Otamendik.

Jantzi beltzak eta koloretako zapia eramateko deia egin dute eta aurrez dantzak ikasi ez dituenak, bihar, entsegu batean izango du aukera Joxe Arregi plazan, 18:30ean.

# Ongizatea eta osasun emozionala lantzeko prozesua gazteekin

Haurren Hiria proiektuaren barruan kokatu dute deliberazio prozesua eta 8-12 urte arteko haur eta gazteek hartuko dute parte; lehen saioa abenduaren 16an izango da

**Erredakzioa** Tolosa

Tolosako Haurren Hiria egitasmoaren barruan eta herriko haurrekin elkarlanean, gai desberdinak lantzen dituzte urtero, aurtengoa ongizatea eta osasun emozionala landuko dute. Horretarako deliberazio prozesu bat antolatu du udalak eta 8-12 urteko haurrekin garatuko dute.

Udalak esan du kasu honetan urrian abiarazitako lehen Herriarren Batzordearen prozesu bera jarraituko dutela, beti ere haurrei egokitu. Horiek horrela, parte hartuko duten haurrek zozketa bidez eta hainbat adierazle kontuan hartuta aukeratu dituzte eta herriko hiru ikas-tetxeetako ikasleen artekoak izango dira. Hain zuzen, Lehen Hezkuntzako 3-6 mailen arteko



Ikasleek Haurren Hirian landutako ideiak aurkeztu zituzten maiatzean. ATARIA

gazteen artean aukeratu dituzte. Guztira lau gai landuko dituzte, lau saiotan banatuta: emozioak, dolua, *bullyinga* eta bakardadea.

Saioak abenduaren 16an, urtarilaren 20an, martxoaren 3an eta martxoaren 31n izango dira.

Saio guztiak kultur etxean izango dira.

Saioetan aditu baten hitzaldia jasoko dute eta ondoren, Gazte-ria sailaren gidaritzapean, gaiaren inguruko hausnarketa eta lanketa egingo dute jolas zein ekintza desberdinen bidez.



## HASIDA ERAISKETA

**Amasa-Villabonako Kale Nagusiko 62. eta 68. zenbakien arteko eraikinak eraisten hasi dira. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aldatu bitartean, orube hori espazio publikoa izango da, alegia, oinezkoek pasa ahal izango duten eremu ireki bat.** M.G.

# Gaur abiatuko dute kulturaldia Lizartzarrek

Abenduaren 4ra bitarte antolatu dute kultur egitaraua Lizartzan; Juamais Balerdiren 'Erretratuak' erakusketa zabalduko dute gaur

**Irati Saizar Artola** Lizartza

Kulturaldiari ongietorria eman go diete lizartzarrek gaur iluntzean. Abenduaren 4ra bitarte, kontzertu, tailer, ikuskizun eta bestelakoak antolatu dituzte Kalamatrike euskara eta kultura taldeak eta Lizartzako Udalak elkarlanean.

Juamais Balerdi herritarraren *Erretratuak* erakusketa zabalduko dute, gaur, 20:00etan, udal aretoan.

Eta biharko, *Gozamenez scape room*-a antolatu dute, 13 urtetik gorakoentzat. Izen ematea udal aretoan egin beharko da. Hiru saio egingo dituzte, 16:30ean lehena, eta 18:00etan eta 19:30ean hurrengo biak.

Larunbatean, Ruper Ordorikaren kontzertuaz gozatzeko aukera izango dute. Elizan izango da, 19:00etan.

Hurrengo egunean, igandean, hondar tailerra egingo dute, Andoni Baztarregiren eskutik, 16:00etan, frontoian. Antolatzailerak azaldu dutenez, hondarra ekarriko dute, eta eskulanak egiteko aukera izango da tailerlean, «eskultura modukoak egiteko aukera».


Abenduaren 1ean, ostegunean, *La Vieja* ikus-entzunezkoa proiektatuko dute udal aretoan, 19:30ean. Euskal Fondoko Juan-

ma Balerdi lizartzarra izango da bertan, gaiaren inguruan aritu eta solasaldia egiteko.

Euskararen Egunean bezpera, ostirala baliatuko dute bertso poteoa egiteko. Herriko ostatuan jarri dute hitzordua, 20:00etan, eta Haritz Mujika eta Oihana Iguaran bertsolariak ariko dira kantuan.

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, *Mikra* ikuskizuna eskainiko du Berdinki konpainiak, 17:00etan, frontoian.

Azkenik, abenduaren 4an, igandean, Intujai teatroko Bea Larrañagak *Bonba bat naiz* antzerkia eskainiko du, 18:00etan, zimiterioan.



Ruper Ordorika ariko da elizan. MAUKA

Hilberriak eta urteurrenak

**Ataria**n jarrita  
Urola Kostako  
eta Goierriko  
Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu



## Justo Aierbe Berasategi

Atzo hil zen 86 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-GB-

Emaztea: Pepi Mujika; seme-alabak: J. Agustin eta Karmen Zelaia, Ione eta Iker Pagaldai, Esther eta Oscar Garcia, Sara Mujika eta Iñigo Zapirain; bilobak: Eneko eta Leire, Saioa eta Aritz, Iker eta Ane, Oihana, Sugaar, Saoirse; anai-arrebak: Bruno, Jose Mari, Jabier, Carlos eta Teresa, Tomasa, Ixiar eta Jesus; ezkon anai-arrebak: Juanito eta Juliana, Justo (t) eta Filo (t); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Familiak otoitz bat eskatzen dizue bere arimaren alde eta GAUR OSTEGUNA arratsaldeko ZAZPIETAN SANTA ENGRAZIA Parroki Elizan gorpua aurrean dela, egingo den hileta elizkizunera joateko gonbita egiten dizue. Eskerrik asko aldeztu aurretik.

URTSUARAN-IDIAZABALEn, 2022ko azaroaren 24an.



# Euskararen erabileran atzerakada nabarmena eman da



Tolosa da etxeko euskararen erabileran gora egin duen eskualdeko herri bakarra. E. MAIZ

Tolosaldeko herri euskaldunenetan euskararen ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea handitzen ari da, Eustaten datuen arabera

## Eneritz Maiz Etxarri

Eustat estatistika institutuak bost urtetik behin argitaratzen ditu datuak, hau da, datu aitortuak, eta urriaren amaieran argitaratu zituen euskarari dagozkionak. Orain, Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak bere herriei dagokion irakurketa egin du. Nabarmendu duteenez, udalerri euskaldunen kopurua igo egin da, eta Tolosaldean ere, udalerri guztiek jarraitzen dute udalerri euskaldun izaten, baina «kezka» sortzen duten datuak ere badira, euskaldunenei begiratuta, igoerarik ez baita eman.

Maier Ugartemendia leaburrar da Uemako teknikaria, eta kezkatuta hitz egin du. «Oro har, ezagutzaren beheranzko joera eten egin da udalerri euskaldunetan, baina aurreko urteetako galera ez da berreskuratu, eta horrek ondorio nabarmenak ditu euskararen erabileran. Euskal-

dun-dentsitate handieneko udalerri gutxiago dago». 1991an 22 udalerri zuten %80tik gorako ezagutza; 2021ean, ordea, 20 herri dute %80tik gorako ezagutza.

Badirudi jaitsiera hori ez dela hain nabaria, baina galdu den hori ez dela irabazi da gakoak: «Elduain bat %100 euskaldun izate-tik %90 izatera jaitsi denean, ezagutzan jaitsiera gelditu egin dela esan daiteke, eta jaitsi denean ez da izugarritzko saltoa eman; baina, era berean, azken urteetako beherakada hori ez da berreskuratu. Aldiz, udalerri erdaldunenetan igo egin da ezagutza, Tolosa edo Amasa-Villabona kasu».

Lehen hizkuntza eta etxeko erabilerari begiratzuz gero, ordea, jaitsiera nabarmena da, eta bereziki jaitsi da herririk euskaldunetan edo arnaguneetan. Euskara da Tolosaldean herritar gehienek lehen hizkuntza (% 53), eta hamarretik ia batek

gaztelaniarekin batera jaso du euskara etxean (% 8); % 39k erdarak dituzte lehen hizkuntza.

Esaterako, 1991. urtean, 20 herritan hamarretik zortzik zuten euskara lehen hizkuntza. Gaur egun, ordea, zortzi herritan bakarrik gertatzen da hori. «Asko da, eta horrek gero erabileran eragiten du. Zuk zein hizkuntza menderatzen duzun ondoen, erraztasun gehiago izango duzu eta erabilera handitzen du». Eta

## «Herritarrek gertatzen ari denaz kontziente izan behar dute, eta euskararen aldeko hautua egin»

### MAIER UGARTEMENDIA UEMAKO TEKNIKARIA

etxeko erabilerari begiratzuz gero berdina gertatzen dela dio Ugartemendiak: «Etxeko erabileran eman da jaitsierarik nabarmena, eta galera hori ez da eten oraindik».

1991n, %68ko ezagutzarekin, %50ekoa zen erabilera; 2021ean, %73ko ezagutzarekin, %43koa da. «Datua are esanguratsua da laugarren gune soziolinguistikoa, euskararen indizea %80tik gorakoa duten udalerrietan. 1991an 22 udalerri ziren eta

horietatik 18 herri zuten etxeko erabileran %80tik gorako erabilera. 2021ean 20 herri ziren %80tik gorako ezagutza zutenak, eta 4 herri soilik dira %80tik gorako erabilera dutenak etxean.

Hemen euskararen transmisioa etxean bertan gertatzen dela argitu du; «lehen hizkuntza hori eta etxeko erabilera hori ez badute, geroko erabileran zuzenean eragiten du. Kaleko erabilera, oraindik ere, gehienetan etxeko erabilera baino handiagoa da, baina etxeko erabilera horrek gerora eragin egingo du kaleko erabileran». 1991n, %72ko ezagutzarekin, %54koa zen erabilera; 2021ean, %73ko ezagutzarekin, %41ekoa. Areago, %90eko ezagutzarekin, %81ekoa zen erabilera, 1991n; eta 2021ean, %84ko ezagutzarekin, %59koa da.

Hizkuntza batek bizirik iraun dezan beharrezkoak dituela arnaguneak dio: «Hizkuntza nagusi izango diren herri horiek, hizkuntza bizirik egongo dena, hizkuntza modu natural batean transmitituko diren herriak, azken batean euskaraz bizi diren herri horiek beharrezkoak dira euskararen biziraupenerako». Eta arnagune diren herri horietan «bilakaera negatiboa» izaten ari dela nabarmendu du. «Horre-

gatik dago kezka, eta herrietan bizi den kezka hori datuek islatzen dute».

## «ERAGIN BEHARRA»

«Herrietan sumatzen da euskararen erabilera jaisten ari dela, ikastetxeetan ere gero eta kezka handiagoa dago, eta datu hauek hori berretsi baino ez dute egiten», dio Ugartemendiak. Hizkuntza politika «aurrerakoiak» behar direla, eta adostasuna beharrezkoa dela esan du; «eragin beharra dago, benetan duen balioa eta garrantzia emanaz euskarari». Herritarren kontzientziazioan jarri du gakoak: «Herri horiek udalerri euskaldunak dira, eta gaitasuna badago, beraz herritarren kontzientziazioan eragin behar da, gero erabileran eragin ahal izateko».

Herri gehienetan badela «gaitasuna» euskara gehiago erabiltzeko uste du Uemako teknikariak. «Baina, gure herrietan ere biztanleriaren ezaugarriak gero eta gehiago ari dira aldatzen; gero eta gehiago mugitzen gara beste herri batzuetara eta gero eta gehiago etortzen dira beste herri batzuetatik gurera». Guzti horrek beste hizkuntza ohitura batzuk edukitzea eragiten duela dio: «Hautu bat egin behar da,



## zozketak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

**UR BIZITAN**  
dantza  
ikuskizuna



Azaroak 27, igandea, 19:30ean  
Amasa-Villabonako Gurean

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu



**Guuk Gipuzkoa Basket**  
vs Iraurgi ISB

Azaroak 27, igandea  
18:00etan  
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat **bi sarrera bikoitz** ditugu



Azaroak 26  
Larunbata  
17:00etan  
Baionako Lauga  
kiroldegian

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**



eta kontzientzia aktibo bat ez badago euskararen erabilera beharrezko joeran eragiten du. Ikus-entzunezkoen kontsumoa dela, gure gizarte ohiturak, globalizazioa, ... gero eta faktore gehiago daude ohitura horietan eragiten dutenak, beraz, ezinbestekoa da hautu bat egitea, hau da, euskararen aldeko hautua egitea», azpimarratu du Ugartemendiak. «Gaitasuna» dagoela ikusita, garrantzitsutzat du herritarrak kontziente izatea gertatzen ari denaz, «eta kontzientzia horren barruan, euskararen aldeko hautua egin».

### EUSKARA GEHIEN, ESKOLAN



Bestalde, erabilera erraztasunarekin lotuta dagoela azaldu du: «gure udalerrri euskaldunetako ikastetxeetan geroz eta gehiago dira erdaraz euskaraz baino gaitasun handiagoa dutenak». Eta, guztia lotuta dagoela dio: «azken batean, euskararen erabilerekin dago lotuta, etxean jasotzen duzun lehen hizkuntza horretan erraztasun gehiago izango baituzu, eta erraztasun gehiago baduzu, gehiago erabiliko duzu».

Ikastetxeetan egiten dutela gehien euskara haurrek diote. «Nahiz eta ikastetxeetan kezkatuta egon, bertan erabiltzen dute gehien; etxean gutxiago egiten dute, eta gainera anai-arrebekin gehiago erabiltzen dute gurasoekin baino», argitu du teknikariak. Lehen hezkuntzan DBHn baino «askoz gehiago» erabiltzen dutela zehaztu du; «koskortzen ari diren heinean etxeko hizkuntza aldatu egiten da, eta azken batean etxeko hizkuntza gaztelania bilakatzen da».

Kezka mahai gainean jarrita bukatu du Uemako teknikariak: «Tolosa hein batean Tolosaldeko herrietako herritarrek euskaldundu dugu, eta orain Tolosaldea erdalduntzen ari bada, Tolosak ere denborarekin bide bera hartu lezake».

### EUSKARAREN ETXKO ERABILERA EHUNekoETAN

HERRIA	1991	2001	2011	2021
Abaltzisketa	98,2	96,2	89,2	83,1
Aduna	96,8	87,7	75,9	74,4
Albiztur	99,0	93,7	84,3	78,8
Alegia	75,8	75,4	62,5	59,7
Alkiza	94,9	87,1	77,7	74,3
Altzo	95,3	87,7	75,4	74,6
Amasa-Villabona	54,1	51,9	47,8	46,4
Amezketza	95,9	92,8	83,5	77,5
Anoeta	58,5	60,3	54,1	49,8
Asteasu	79,0	75,7	67,1	66,1
Baliarrain	100,0	99,0	86,4	80,0
Belauntza	79,0	77,5	70,1	65,4
Berastegi	93,8	89,9	77,1	73,4
Berrobi	76,6	68,3	63,8	57,0
Bidania-Goiatz	90,0	92,3	70,3	63,6
Elduain	99,4	87,6	81,8	81,7
Gaztelu	97,0	89,8	81,9	77,1
Hernialde	83,8	85,8	65,4	65,1
Ibarra	56,0	51,7	46,0	45,9
Ikaztegieta	88,0	79,6	66,5	59,8
Irura	67,7	67,4	53,6	46,8
Larraul	96,2	91,7	74,7	70,5
Leaburu-Txarama	81,8	81,3	71,0	67,5
Lizartza	94,5	89,4	72,7	65,7
Orendain	91,5	96,2	79,4	70,4
Orexa	100,0	94,6	92,1	86,5
Tolosa	42,9	45,0	45,6	46,4
Zizurkil	52,1	49,5	46,5	45,2



Goran euskararen ezagutzaren datuak eta behean etxeko erabilera datuak.

# Euskararen eguna girotzen hasiko dira Tolosan

## Abenduaren 3ra bitartean, Euskaraldiaren amaierako egunetan, hainbat ekitaldi antolatu dituzte aldarrikapenerako

### Erredakzioa

Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatuko da. Euskaraldia martxan egongo da abenduaren 2ra arte eta hurrengo egunean, larunbatean, gure hizkuntzaren eguna ospatzeko eta aldarrikatzeko ekintzak egingo dira hainbat txokotan. Hori dela eta, hainbat eragileren artean antolatutako egitaraua osatu dute Tolosan. Tolosako Udalak, Galtzaundi Euskara Taldeak, Harituz Bertsozaleen Elkargu-neak eta Altxa Burua taldeak elkarlanean antolatu dituzte egitarauko ekitaldiak.

Azaroaren 29rako prestatu dute lehen hitzordua. 19:00etan, kultur etxean, irakurle taldearen saio irekia egingo dute Ane Labaka idazlearekin. *Erradikalak* liburuari buruzko solasaldia izango da.


Hurrengo egunean, azaroaren 30ean, *Seme-alaben teknologia kontsumoa. Zeregin eta nola eragin?* mahai ingurua antolatu dute, 18:30ean, kultur etxean. Pantailen eraginaren inguruan gogoeta egiteko saioa Pantailak Euskaraz ekimeneko Xabier Alkizarekin eta Uemako euskara teknikaria den Garikoitz Goikoe-txearekin. Altxa burua taldearen laguntzarekin antolatu dute.

Abenduaren 1ean, *Jun ta bota!* lagunarteko bertso-poteo inprobisatua egingo dute tabernaz taberna. 19:00etan elkartuko dira Tontokalen, eta hortik abiatuko

dute poteoa. Harituzeko kideez gain, gainerako bertsozaleek ere parte hartzeko aukera izango dute, bertsozaleen gozamenerako.

Abenduak 2an, Nerea Arriolaren *Mikrotik...* bakarrizketa umoretsua izango da, 19:00etan, kultur etxean. Bertan, umoregile ezagunak euskal hiztunen ahaleginak, penak, pozak, zalantzak, bitxikeriak... izango ditu hizketagai, ikusleak egoeran jarri eta hausnarketa probokatzeko helburuz. Sarrera doakoa izango da.

Euskararen egunean, abenduaren 3an, euskarazko kantuen bingoa antolatu dute. 12:00etan hasiko dira, Trianguloan. Tolosaldeko herrietan antolatu den ekintza bateratua da bingo musikatuarena. Parte hartu nahi dutenek, kantuak asmatuz osatu beharko dute bingoa, saria eskuratzen. Kartoiak egunean bertan egongo dira eskuragai.



2019an, 'Hitzolariak' jokoan. A.I.



## harpidedun izateak badu saria zozketa

### 1 Jantzi EUSKARALDIA 2022

Kamiseta, poltsak eta banderatzokoak



Eman izena:  
www.izenematea.euskaraldia.eus

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

### 2 LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartzeko Talaso Zirkuitua



Kontxako pasealekua z/g DONOSTIA  
943 45 88 56  
www.la-perla.net

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

### 3 ALAKRANA DE ECHEBASTAR

Produktu sorta



Errotxape kaia  
48370 BERMEO  
946 18 65 00  
www.alakrana.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

## Eskualdeko lau pilotari ariko dira binakako txapelketan

Promozio Mailako Binakako Txapelketan aldiz, Tolosaldeko bi ariko dira: Elizegik eta Iztueta

### Erredakzioa

Amezketako Altuna III. eta Anotako Tolosa pilotariak elkarrekin osatuko dute bikotea aurkeztu berri duten 2023ko Eskuz Binakako Txapelketan, aurten beraz, ez da Martija izango bere atzelaria. Jakak Arangurenekin batera jokatu du, eta Peña II.ak Mariezkurrena II. arekin. Artola txapelketatik kanpo utzi dute. Aspe enpresako beste hiru bikoteak ondorengoak izango dira: Peio Etxeberría-Rezusta, Elordi-Zabaleta eta Ezkurdi-Martija (2020an txapeldun izan zen bikotea).

Ondorioz, Aspek Iker Irribarría eta Danel Elezkano utzi ditu kanpoan. Biek jokatu zuten azken binakakoa. Hain zuzen, Peio Etxeberría eta Elordik bikotekide izango dituzten bi atzelariak aritu ziren biak: Irribarría, Rezustarekin, eta Elezkano II.a, Zabaletarekin. Biak finalerdietako ligaxkan geratu ziren lehiatik kanpo. Baikor ez du aldaketarik egin pilotarien zerrendan. Aurreko aldiko berdinak ariko dira. Ordea, bikoteak berriak dira: Jon Ander Peña tolosarrak Mariezkurrena II. arekin jokatu du, eta Erik Jaka lizartzarrak, Aitor Arangurenekin. Laso-Imaz eta Urrutikoetxea-Albisu izango dira beste bi bikoteak.

Txapelketa bihar hasiko da eta igandean Tolosan Urrutikoetxea-Albisuk eta Peña II.a-Mariezkurrena II.ak jokatu dute.

### PROMOZIOKOA

Promozio Mailako Binakako Txapelketan ere izango dira eskualdeko ordezkariak. Martxel Iztueta tolosarrak, debuta egin eta gutxira, lehen txapelketa jokatu du pilotari profesional modura; Agirrekin batera ariko da. Iaz txapeldunorde izan zen Iker Elizegi asteasurrak ere jokatu du; Zubizarreta III. arekin osatuko du bikotea.

Zazpi jardunaldiko bi itzuli, orotara hamalau jardunaldi jokatu dituzte pilotariak sailkapen ligan.

# Arkaute etxeak Euskal Mendizaletasunaren Museoa hartuko du

2024rako ireki nahi dute Euskal Mendizale Federazioaren 100. urteurrenarekin eta XIV Orduak mendi ibilaldiaren ospakizunarekin bat eginez

### Erredakzioa Tolosa

Tolosako Larramendi auzoan dagoen eta udalaren jabetzakoa den Arkaute eraikinak Euskal Mendizaletasunaren Museoa hartuko du. 2024. urterako izan nahi dute prest eta proiektuak udalean ordezkariak duten hiru alderdiek babesten dutela nabarmendu dute.

### PIEZA ETA DOKUMENTUAK

Museoak interes historikoa duten pieza eta dokumentu ugari bilduko dituela esan dute, hain zuzen, Emmoa fundazioarenak direnak. Fundazioko kideak, Euskadiko eta Nafarroako Mendi Federazioekin batera, denbora zeramaten museo egonkor bat kokatzeko leku bila eta Tolosarekiko interesa adierazi zioten udalari. Txomin Uriarte Emmoa fundazioko presidentea egin dako lanaren emaitza moduan aurkeztu du Arkaute etxean museoarentzat lekua izatea. Era berean, Euskal mendizale Federazioaren lehendakaria den Zigor Egiak euskal mendizaletasunarentzat «egun historikoa» dela esan du: «Federazioek eta erakundeek zor genion zerbait euskal mendizaletasunari eta errealitate bihurtuko da». Mendi eta Eskalada Kirolen Napar Federa-



Proiektuan parte hartu duten erakundeetako ordezkariak. I. SAIZAR

kundeko lehendakariak, Martin Montañesek, museo «euskal mendizaletasunaren erreferente» izan dadila eskatu du.

Olatz Peon Tolosako alkateak, bere aldetik, eskerrak eman dizkie Tolosa aukeratu izanagatik eta adierazi du Tolosa mendizaletasunari oso lotua dagoen herria dela. «Uste dugu proiektua oso interesgarria eta egokia dela herriarentzat zein herritarrentzat eta ziur gaude tolosarrek asko estimatuko dutela».

### PROZESUA MARTXAN

Honenbestez, Arkaute etxea izango da Euskal Mendizaleta-

sunaren Museoaren kokalekua eta udalak egokitzeko obrak egiteko baliabideak jarriko ditu. Zentzu horretan, 2023. urteko aurrekontu proiektuan aurrekusi dute diru partida bat. Udalak oraingo, eraikineko teilatua berritu du. Emmoa fundazioak dagoeneko museo-proiektua garatu du eta Euskal Federazioak obra-proiektua egiteko konpromisoa hartu du bere gain. Azaldu dutenez, 2024. urterako museoak ateak zabaltzea da asmoa, bat eginez Euskal Federazioaren 100. urteurrenarekin eta XIV Orduak mendi ibilaldiaren ospakizunarekin.

## Itxaropena galdu gabe

### Aulkitik Irati Zabala

Tolosa CF, 1. Maila Nazionala

Itxaropena galdu gabe segi behar dugu. Hamargarren jardunaldia eta oraindik irabazterik lortu gabe. Asteburuan jokatu genuen partida garrantzitsua zen guretzat, beheko postuetatik ateratzeko pausoa izan zitekeelako.

Gogotsu irten ginen aldageletatik, partida txukun bat egin eta hiru puntuak etxean gertatzeko asmoekin. Horrela, lehen minutuetan Elenaren golak aurretik jarri gintuen. Handik gutxira Racing-en gola iritsi zen, baina burua jaitsi gabe aurrera egin genuen eta gure bigarren gola iritsi zen. Gure akatsengatik, ordea, Racingen bi golak iritsi ziren, atsedendira 2-3ko markagailuarekin joan ginela-

rik. Atsedenetik bueltan gauzak aldatu ordez okertzen joan ziren, kanpokoen 4. gola iritsi baitzen. Ahaleginak egiten jarraitu genuen eta azken minutuetan gure hirugarren gola iritsi zen.

Hurrengo partida ere oso garrantzitsua da, azpiko zulotik ateratzeko lehian segitzeko.

Horregatik hurrengo astean hiru puntuak Tolosara ekarriko ditugula argi daukat!

## Gurpilen gainean eta ziztu bizian Usabalen

Igande honetan VII. Iristaka Indoor Sari Nagusia jokatu dute Usabal kiroldegian, Iristakak antolatuta

### Imanol Garcia Landa Tolosa

Iristaka patinaje taldeak antolatutako Iristaka Indoor Sari Nagusia izango da igandean, azaroak 27, 09:30etik aurrera Tolosako Usabal kiroldegian. Beñat Azurmendi Iristaka taldeko kideak azaldu duenez, sendotuta dagoen txapelketa da: «Ilusioa dugu, hor jarraitzen dugu zazpigarren urtez eta lasterketak ikusteko gogoz gaude».

Goizeko bederatzietan hasiko dira patinatzaileak beroketa lanak egiten eta 09:30ak aldera hasiko dira probak. Hiru mailatan banatu dituzte parte hartzaileak, eta hor izango da aurtengo berrikuntzetako bat, maila bat erantsi dutelako. Gazteen maila 15 urte artekoa izango da eta hortik gora senior mailakoak izango dira. Seniorretan master kategoria txertatu dute aurten lehenengo aldiz, gorengo mailan aritzen ez direnei parte hartzeko aukera emanez. Orokorrean maila handiko lehiak ikusiko direla esan du Azurmendik, eta Espainiako Txapelketan lehiatzen diren iristalariak izango direla nabarmendu du: «Seguru lasterketa politik ikusiko ditugula».

Hiru proba mota izango dira, bi banaka eta bat erreleboka. Banaka, batetik, abiadurazko proba izango da, pistari lau itzuli emanez. «Sekulako abiaduran aritzen dira patinatzaileak», esan du Azurmendik. «Hain karrera motzak izanik, parekotasun handia dagoenetan aurreraketak ikusgarriak izaten dira». Bestalde, aurtengo beste berritasuna proba luzeago bat jarri dutela izan da: hamabi itzuli emango dituzte proba horretan. Horrez gain, erreleboka ere egingo dute beste proba. Azken horretan, txanda ematerakoan abidan doan taldekideak besteari bultzada ematen dio, daraman abiadura besteak aprobetxatzeko.

Txapelketa osoak 13:00ak ingurura arte iraungo du eta Azurmendik deialdia egin die herritarrei Usabalera joan eta patinajaren ikusgarritasunaz gozatzeko.





ZURIÑE IGLESIAS SARASOLA

# «Taldez aldatzea erabaki nuen Laboral Kutxak dituen helburuak ikusita»

## NAIA AMONDARAIN TXIRRINDULARIA

Txirrindulari ibartarrak bi sasoirako sinatu du Laboral Kutxarekin; haren ustez, «etorkizunera begirako proiektu bat» du taldeak, eta helburu dute 2024rako World Tour mailan egon ahal izatea

### Zuriñe Iglesias Sarasola Ibarra

Iragan denboraldi ezin hobea egin zuen Naia Amondarainek (Ibarra, 2001). Bigarren egin zuen 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan, Euskadiko txapel-duna izan zen kategoria berean, eta besteak beste, Itzulian, Europako Txapelketan eta Tour de Ardechen korritu zuen. Horrez gain, pistan ere urrezko hiru domina kolokatu zituen Espainiako Txapelketan. Erdietsitakoak saria izan du; Laboral Kutxak bi sasoirako fitxatu baitu ibartarra. Sopelan hiru denboraldi egin ostean, «aldaketa bat behar» zuen Amondarainek.

### Nola sortu zen Laboral Kutxan aritzeko aukera?

Azken urteetan hartu-emanan izan dut beraiekin. Izan ere, hemengo txirrindularia naiz, eta proiektua hemengoa da, beraz, beti izan dugu harremana. Egia da azken urteetan ez dudala beharrik ikusi taldez aldatzeko, Sopelan oso gustura nengoelako. Denboraldi honetan, ordea, Laboral Kutxak emakumeekiko zuen proiektua aldatu egin du: etorkizunera begirako proiektu bat egin du, eta orduan hasi nintzen beraiekin hitz egiten, eta azkenean, taldez aldatzea erabaki nuen.

### Erabaki erraza izan al zen?

Ez da erraza izan hiru sasoi egin baititut Sopelan, eta familia bat bezala ginelako. Beste taldeekin alderatuta kanpotik ikusten zen talde umilagoa ginela, eta ni eroso nengoen bertan. Eroso zauden talde batetik ezjakintasunez beteta dagoen beste batera joateak zalantzak sortzen dizkizu. Baina azkenean Laboral Kutxara joateko erabakia hartu nuen.

### Zer erakarri zintuen gehien Laboral Kutxaren proiektuaren berri jakin zenuenean?

Taldeak duen proiektua, bereziki. Babesleek hainbat urtetarako sinatu dute, eta horrek segurtasuna ematen dizu. Horrez gain, baliabideak dituzte, eta beraiekin esan bezala, hazten jarraitzeko asmoa dute. Beraz, Laboral Kutxak dituen helburuak ikusita, eta aldaketa bat behar nuela jakinda, taldez aldatzea erabaki nuen.

### «Uste dut pauso bat aurrera eman dudala, eta hori behar nuen neure buruarengan konfiantza izateko»

suna ematen dizu. Horrez gain, baliabideak dituzte, eta beraiekin esan bezala, hazten jarraitzeko asmoa dute. Beraz, Laboral Kutxak dituen helburuak ikusita, eta aldaketa bat behar nuela jakinda, taldez aldatzea erabaki nuen.

### Ion Lazkano Laboral Kutxako kirolarduradunaren esanetan, helburua da 2024erako World Tour mailako taldea izatea. Nola ikusten duzu?

Horiek hitz handiak dira. World Tour mailako talde bat izateko maila handia erakutsi behar da, eta badakigu ez dela erraza izango. Aurreko astean taldeko lehen egonaldia egin genuen gure artean ezagutzen hasteko, eta bertan esan ziguten beraiekin ere jakitun direla xedea lortzea zaila izango dela. Izan ere, World Tour mailan geroz eta talde gehiagok eskatzen dute leku bat, eta plaza kopurua orain arte mugatuta egon da. Orduan, ikusi beharko da, gizona zehazki egiten duten bezala, ea puntuak jokoan egongo diren ala ez. Eta, horrela bada, puntu horiek lortzea ere oso zaila izango da. Esan bezala, beraz, helburu bat bezala jarri digute, baina ez gara horrekin itsutuko.

### Iragan denboraldiko 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketako lehen hirurak Laboral Kutxan zaudete. Gazteen aldeko apustu sendoa egin du taldeak?

Bai, iragan sasoi 23 urtez azpiko hiru lehenak taldean gaude. Mireia [Trias] jada elite mailakoa izango litzateke, eta gero, beste gazte batzuk ere badaude taldean. Multzoa gaztea izan arren, esperientzia duen jendea ere badago taldean. Horrez gain, beraiekin [Laboral Kutxako zuzendarien eta arduradunen] asmoa ere bada Euskal Herriko harrobiarekin lan egitea.

### Eskarmentua duten taldeak aipatu dituzula, Eider Merino ere fitxatu du taldeak. Bizkaitarrak eskarmentu handia du World Tourrean, eta besteak beste, Movistarren izandakoa da. Zer suposatzen du zuretzat Merino bezalako txirrindulari bat taldean egoteak?

Eskarmentu handia duen txirrindularia da, eta uste dut alde horretatik asko lagundu dezakeen pertsona bat dela. Horrez gain, taldeak ere bultzatzen du euskal txirrindulariak egotea multzoan, eta Eider garrantzi handiko txirrindularia izango da taldean.

### Taldekide berriak ezagutu dituzu dagoeneko. Zer nolako harrera egin dizute?

Egia da taldekide asko lehendik ezagutzen nituela, eta ezagutzen ez nituenak bistaz ezagutzen nituela. Azken finean, ia denak ezagutzen dugu elkar tropelean. Arraroa izan zen hasieran, egonaldi batean baino, lagun artean

geundela zirudielako. Izan ere, orain arte nire lagunak izan dira, baina ez taldekideak. Oraindik txipa aldatu behar dut, eta denborarekin joango naiz ohi-tzen.

### Urte borobila izan da zuretzako. Egindako lanak, beraz, badu saria ezta?

Bai, egia esan oso gustura nago egindako denboraldiarekin. Dena hain azkar pasatzen da, momentuan ez zarela jabetzen lortu duzunaz. Izan ere, segituan jartzen zara hurrengo lasterketari begira. Pertsonalki uste dut pauso bat aurrera eman dudala, eta hori behar nuen neure buruarengan konfiantza irabazteko.

### Zein rol izango duzu Laboral Kutxan?

Oraindik ez dakit. Iragan astean egin genuen egonaldian banakako bilerak egin genituen, baina ez genuen horrelakorik zehaztu. Gero, lehiaketa gerturatzen hasten denean, pentsatzen dut joango garela rol horiek zehazten. Ni laguntzeko prest nago, eta uste dut hori egitea egokituko zaidala. Badaude txirrindulariak lasterketa irabazteko lehiak egongo direnak, eta beraiekin laguntzea egokituko zait, baina atsegin handiz egingo dut.

### Datorren sasoiari begira zein helburu jartzen diozu zeure buruari?

Entrenatzen hasi gara, baina pixka bat deskonektatuta nabil oraindik. Ez naiz hasi pentsatzen horretan, aurrerago hasiko naiz.

### Egutegia finkatuta duzu ala oraindik ez?

Egonaldian esan ziguten gutxi gorabehera taldeak nahi duen egutegia, baina azkenean nazioarteko lasterketarako egutegia nahiko konplikatu da gonbidapena jaso behar duzulako. Orduan, taldeak egin ditu eskaerak lasterketa batzuetan aritzeko, baina oraindik hori zehazteko dago.

### Zein lasterketa duzu begiz jota?

Ilusio handia egiten didan las-

### «Txirrindulari batzuk irabazteko lehiak egongo dira eta beraiekin laguntzea egokituko zait»

terketa da Itzulia betidanik; iragan sasoiaren asko gozatu nuen, eta datorrenean ere parte hartzea gustatuko litzaidake. Gero, hemengo lasterketak direnak ere politak izaten dira; Eibarkoa eta Nafarroako Klasikoa, besteak beste.



## OSTEGUNA, 2022KO AZAROAK 24

### Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

**Lege Gordailua:** SS-1323-2013

**Koordinatzailea:** Rebeca Calvo Gonzalez

**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete

**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.

**Telefonoa:** 943 65 56 95.

**E-posta:** ataria@ataria.eus

**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus

**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

**Anoetalea:** 687 410 022.

anoetaldea@ataria.eus

**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus

**Alegialdea:** 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

**Bezero arreta zerbitzua:** 943 30 43 46



# Ataria.eus

ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:  
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



# OSTEGUNA 24

## AGENDA

### Deialdiak

**Aduna.** Kale antzerkia, herriko plazan, 18:30ean.

**Altzo.** Euskal emakume idazleen irakurketa tailerra, Batzarremuñon, 19:00etan. Maddi Ane Txoperenaren *Ez erran inor* aztertuko dute, Oihana Iguaran dinamizatzaile dela.

**Amasa-Villabona.** Loatzo musika eskola, musika eskolan, 19:30ean.

**Anoeta.** Ipuin Txokoa, LH1-LH2ko haurrentzat, liburutegian, 18:00etan.

**Anoeta.** Euskara, feminismoa eta beste bidaide batzuk, Lorea Agirre-ren eskutik, balioantzeko gelan, 18:30ean.

**Berastegi.** Bingoa Gaztainondo elkartean, 18:00etan.

**Larraul.** 17:00. Lehen sorospinak haur eta nerabeentzat, liburutegian. 18:30. *Kobazuloak eta zaborrabide* oaren emanaldia eta solasaldia, kultur etxean.

**Tolosa.** Titirijai: *Orbital*, 10:00 eta 12:30, Leidorren. *Donde vas, Moby Dick?*, 10:00. Topic-en. Familia guztiari zuzendurik. Txotxongilo antzerkiaren barruko indarkeria, Topic-en, 17:00etan. *El tiempo de las tortugas*, 20:30, Topic-en.

**Tolosa.** Alkoholiko anonimoen bilera irekia, San Esteban auzoko lokalean, 19:30ean.

**Tolosa.** *Dina. Bizitza eta kirola...25 urte itsasoan galdu nintzenetik* kultur etxean, 19:30ean. Itxaro Bordaren sarrera hitzaldia, Anartz Agirrek ETBrako egindako dokumentala eta *Emakumea eta itsaso* bekaren aurkezpena.

**Tolosa.** Liburu eta diskoen azoka solidarioa, Trianguloan, 09:00etatik, 20:00etara.

### Ikus-entzunezkoak

**Amasa-Villabona.** *Into the ice. Patagonia*, Gurean, 20:00etan. Ondoren, argazki rallyko sari banaketa.

**Tolosa.** *La consagración de la primavera*, Leidorren, 20:30ean.

## 28 KANALA

09:30. Gaurkoan Tolosaldeko

15:00. Elkarrizketa

16:00. Harri Salda

17:30. Gaurkoan Tolosaldeko

21:30. Gaurkoan Tolosaldeko

22:00. Playlist

## ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzearekin.

12:30. Pasahitza. Asier Imaz eta Josu Artutxarekin, eskualdeko albisteak.

18:00. Zientziaren talaia. Josu Lopez Gazpiorekin.

20:00. Mendikatea. Unai Ugarte-mendiarekin, mendiari buruzko saioa. Gaurkoan, Hassan Ait Chaou mendi lasterkaria.

## FARMAZIAK

### Gaur

**TOLOSA. Egunekoa.** I. Ollarrea. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.

**TOLOSA. Gauekoa.** L. A. Morant. Zabalarrretalorategiak, 1. 943 67 38 49.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Giro nahasia. Goizean erdi eta goi-mailako hodeiak ugariak izanagatik, ateri egongo da eta eguraldi lasaia izango dugu. Eguerdi edo arratsaldeko lehen orduan hegoaldeko beste fronte bat iritsiko zaigu, zerua estalirik geratuko da eta euritarra joko du. Zaparradak ahulak izango dira, baina arratsaldean giro bustiagoo izango da. Azken orduetan ateri geratuko da. Haizeak hegotik joko du. Tenperatura antzeko kokatuko da, 13-14 graduan joko duelarik goia.

**Bihar.** Giro kaxkarra. Goizean fronte batek eragingo digu eta zeru estalia eta giro bustia izango ditugu. Zaparrada tarteka mardulak botako ditu, uneren batean ekaitzak jotzea baztertu gabe. Arratsaldeak aurrera egin ahala atertzeko joera hartuko du, azken orduetan ateri geratuko delarik. Mendebaldeko haizea bizia ibiliko da eta tenperatura antzeko kokatuko da, 13-14 graduan joko du.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



## BIZIKLETA HARTZEKO INOIZ EZ DA BERANDU

Foru Aldundiaren *Emakumeok Mugimenduan* egitasmoaren barruan, eta Zumardia elkarteak bultzatuta, emakumeentzat bizikleta ikastaroak egin dituzte aste honetan Tolosan, *Pedalei eragin* lelopean. 10-12 pertsonako bi talde izan dira goizez eta arratsaldez, eta horietan 50-60 urtetik gorako emakumeek hartu dute parte. Antolatzaileek azaldu dutenez, arrazoi desberdinengatik bizikletaz mugitzeko aukerarik izan ez duten edota bizikleta albo batera utzita zuten herritarrek izan dira ikastaroetan parte hartzeri animatu direnak, «inoiz ez da berandu» ideiarekin. Ekainean egin zuten estreinakoz, eta erantzuna ikusita, bigarren goz egin dute orain. A. IMAZ

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

# ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95  
ataria@ataria.eus  
San Esteban 20  
Tolosa

[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus) - 107.6 fm

garabide webopki

## Beltzean mintzo

Amerikako jatorrizko hizkuntzen arnasaz

Dokumentala eta solasaldia  
Garabide Elkartearen eskutik

Abenduak 1, osteguna 18:00 · Herri Eskolako aretoan

EUSKARALDIA

Irurako udala